

FELIX ETXEBERRIA eta JESUS LARRAÑAGA.
Elgoibarko Izarraren sortzaileak.

“Elgoibarko Izarrarekin esnatu zan elgoibartarron euskaltzaletasuna”



Felix eta Jesus. Jesus Plaentxi eta Felix Parapan (1). Zenbat ordu pasa ote dituzte elkarrekin Elgoibar nola euskaldundu pentsatzen, “lanetik urten eta gero, hiru-lau batzar izaten genduzen, afaltzeko astirik gabe. Eta, ustez, etxerako bidia hartzen genduanian, goizeko ordu bata eta ordu bixak arte egoten giñan Gure Bide Elkartiaren parian. Zenbat diskusio izan ete genduzen!” Emazteak ere gogoan dituzte, “geneuzkan andregatik ez balitz, ez genduan egin genduna egingo. Emazteek asko laguntzen ziguten: kuotak prestatzen, kobratzen, errekaduak egiten, eta abar. Gainera, zenbat ordu eman ete zittuzten gure zain!? Bastante egin zebeñ gu aguantatzen”. Felix zen motorra, arima, eta Jesusek, berriz, sasoi hartan behar zen ausardia jartzen zuen, aurrera egiteko grina. Euskararen gurdiañi tira egiteko idi pareta osatzen zuten. 1956an sortutako

gau-eskolen bueltan piztu zitzaizen bieñ euskaltzaletasuna. Gerora, 1962an ikastola sortu zuten, eta, urtebete geroago, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea. 32 urte inguru izango zituzten. Urte asko pasa dira ordutik, baina atzo goizekoak balira moduan akordatzen dira sasoi hartako kontuez. Azkoitiko elkarte batean bildu gara hirurok, duela 40 urteko kontuak akordura ekartzeko. Hasiera-hasieratik, Felixen eta Jesusen arteko konplizitateak harritu nau. Bi ahotatik diharduten arren, ahotsak bakarra dirudi.

Panorama beltza euskararentzat

Jesusek eta Felixek gezurrik ez badiote, 50eko hamarkadako panorama benetan beltza zen euskaldunontzat eta euskararentzat.

- **(Jesus)** Kalian ez zan euskerarik entzuten. Basarritar batzuk animatzen ziran euskeraz egittera, baiña ez zaghan euskeraz jarduten zaban kaletarrik. Eta etxietan ere ez pentsau asko egitten zanik.

- **(Felix)** Nik uste dot, etxietan, egitten zala euskeraz. Baiña, gero, kalera ertendakuan, eskoliaren eragiñez, lagunak erderaz ezagutzen zebeñ alkar. Eta egixa da kaliañ ez zala batere euskerarik entzuten. Bestela, akordau zer esaten zaban Bernabe Mujika zanak: “Errezagua da Plaza Txikixan perretxiko bat topatzia ume bat euskeraz berbetan entzutia baiña”. (2)

- **(J.)** Euskeriak Maltzagaraiño juateko ere ez zabala balio pentsatzen zaban jendiak. Mutillak gitxi egitten gendun, eta neskak, berriz, ez zakixen euskerarik zaghanik ere.

Egoera haren aurrean, bazegoen zerbait egiteko gogoia. “Zeozter nahi zan” egoera hari aurre egiteko. “Bizi nahi, edo halako zerbait izango zuan”:

(1) Felixek Elkarteko lehendakari kargua bete zuen 1967, 1968 eta 1979. urteetan. Elkarteko Zuzendaritza Batzordean, berriz, 63tik 72ra egon zen.

(2) Bernabe zenaren semea den Txominek telefonoz deitu zidan aitak esandakoak bigarren partea daukala esateko. Txominek esan zidanez, aitak topatu egin zuen perretxikoa Plaza Txikian. Zuhaitz bati pega-pega eginda. Zorionez, umeak euskaraz jolasean ere topa ditzakegu gaur egun Plaza Txikian.

- (J.) 50eko hamarkadan hasi zan Pako Juaristi euskal jaixak antolatzen, eta gu berari laguntzen. Eta, gero, 56xan berak prestatu zaban Elgoibarko lehelengo gau-eskolia.

- (F.) Bai, sasoi haretan Pako zan kultur mobimentuari eragiten ziona. Lan haundia egin zaban.

- (J.) Gero, 1960 inguruan Ongarri sortu zaban.

- (F.) Ongarriren bueltan jende mordoskia alkartu zan. Mobimentu kultural majua sortu zan Elgoibarren. Baiña erdaldunak ere baziran tartian, eta batzar eta ekintza guztixak erderaz egitten zian.

Zergatik Elgoibarko Izarra?

Ongarriko giroan eta ekintzetan erdara nagusitzeak ez zion batere graziaz egiten Felixi:

- (F.) Ongarri ixna dana erderaz egitten zan, eta bertan hiru urte inguru egon eta gero, Jesusena jun nitzuan euskeraz funtzionau eta euskeraren alde egingo zaban elkarte bat sortu bihar genduala esanez. Ordurako ikastolia ere martxan zaguena, txiki-txikixa bazan ere. Eta ikastoliari tira egitteko eta umien kuotak merketzeko elkarte bat egokixa izango zala pentsau genduan.

Pentsatu eta egin. Sabin Osororengana joan, honek estatutuak prestatu eta 1963ko martxoan sortu zuten Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte.

Jesusen eta Felixen baimenarekin, estatutuak pare bat artikulu erakutsi nahi dizkizuet. Pentsatuko duzuen moduan, estatutuak gaztelaniaz zeuden:

Art. 1º.- Se constituye en Elgoibar, con domicilio en la calle San Francisco nº 24, el Centro Cultural Recreativo denominado "ELGOIBAR'KO IZARRA (Estrella de Elgoibar), formando una gran familia integrada por niños, jóvenes y adultos que mediante un esfuerzo aunado conseguir una elevación cultural y moral de todos y de los primeros en especial".

Art. 3º.- Para una mayor eficacia de su labor, la Asociación de dividirá en secciones que en principio serán las siguientes:

1º.- Educación y enseñanza.

2º.- Artes y costumbres

3.- Diversión y esparcimiento.

Jesus Mari Ansolak ("El Presidente") eta Begoña Andonegik ("El secretario") sinatutako estatutuak bi artikulu dira.

Herriaren erantzun bikaina

Elgoibarko Izarra sortu eta berehala konaturatu ziren Elkarteak estimazio handia izango zuela herritarren artean:

- (F.) Kristoren erantzuna izan zaban. Gau-eskolan ibilli ziran 80 bazkide izatetik 1.400 bazkide izatera pasau giñan bi urtitan. Hillian 5 pezetako kuotia pagatzen genduan.

- (J.) Bai, nik uste dot jendiaren artian bazaguala euskeriaren gosia. Baiña jendiak bildurra zakan. Politikia ere hor zagan, erderia nagusi zan, ...

- (F.) Bakoitzak bere hartxua barruan zakan, baiña ordura arte ez zan iñor azaldu har hori kanporatzeko.

Elgoibarko Izarra izan zen, bien ustetan, elgoibartarren euskaltzaletasuna



esnarazi eta kanporatzen lagundu zuena. Baina herritarrek ez zuten proiektua bakarrik estimatzen, beraiek egiten zihardutena ere baloratzen zuen jendeak. Elgoibarko Izarraren kontuarekin hasi zirenean, Jesus akordatzen da nola joan zen herritar bat Felixengana: Zuek ez behintzat ezertan nahastu, e! Bestela, zuek jausten bazerate, zeinek egin bihar dau egitten diharduzuen lana?

“Trenak bezala, beti aurrera!”

Jesusi eta Felixi entzunda, badirudi terreno laua izan zutela. Ez dirudi arazo handirik izan zutenik Elgoibarko Izarraren eguneroko lanean.

- (F.) Egixa esan, ez genduan arazo larregirik izan. Dirurik ez zakagun, eta zakagun apurra ikastoliak jaten zigun. Baiña momentu bakoitzian lortzen genduan bihar gendua. Izan ere, aurretik ere diru gitxi ikusittakua gñan!

- (J.) Bai, Loritoko lokala erosteko, adibidez, bonuak etara genduzen eta 75.000 pezeta bihar bagenduzen ere, 90.000 pezeta batzia lortu genduan. Jendia oso ondo portatzen zan. Gero, Ubitarteko azpi osua erosteko ahalegiña ere egin genduan, baiña ez genduan nahi beste lortu. Orain Elkartia dagueen lokala erosteko beste lortu genduan.

- (F.) Ikastoliaren kasuan ere, legia ez gendukan alde, baiña gurasuak gurekin zauden eta horrek bultzatzen gñuzen segitzera.

Jesusek akorduan dauka sasoi hartan zuten ilusioa eta kemena:

- (J.) Guretzat ez zagueen arazorik! Beti aurrera egitten genduan, trenak bezela. Muturrekuak ere hartu genduzen, baiña pareta jotzen genduanian pauso bat atzera eman eta, benga, berriz ere aurrera egitten genduan.

- (F.) Ni makala nitzan horretan, eta beti Jesus aurrian hartuta juten nitzan toki guztixetara.

- (J.) Je-je, Felixek beti esaten zian: “Hire gizurak gehixago balixo jok nere egixak baiño”. Batzarretara Felixeri laguntzera juten nitzan, baiña beti nik amaitzen naban berbetan.

“Asmatu al genuen?”

Elgoibarko Izarrarekin asmatu zuten ala ez galdetu diet, elkarrizketari amaiera emateko:

- (F.) Nik uste dot asmau genduala.

- (J.) Guk zakagun kapazidadiarekin ezin zan egin genduna baiño gehixago egin. Karrerarik ez gendukan, eta, zero numerua egitteko ere, baso bat bihar genduan! Herrixan kristorene eragiña euki zaban, eta kolpia une egokixan eman gendualakuan nago.

- (F.) Gu izan ez bagiña beste batzuek egingo juen igual. Hobeto? Hori ez dogu sekula jakingo. Hori bai, guk lan haura egiñ ez bagendu, eta euskeria politikuen eskuetan geratu izan balitz, akabo! Alderdi politikua sortu ziranerako euskalgintzaren arrastua zabaldua zagueen Elgoibarren, eta beti errespetau debe.

- (J.) Dana dala, asmau genduan ala ez, guk baiño hobeto, beste batzuek juzgau biharko debe, ezta?

Nik uste herriak juzgatu duela Felixek, Jesusek eta beste hamaika elgoibartarrek garai hartan egindako lana. 60ko hamarkadaren lehen urteetan zuek ereindako haziak makina bat fruitu eman du, eta, berrogei urte geroago, uzta jasotzen dihardugu.



SABIN OSORO. Elkartearen sorrera prozesuko laguntzailea.*“Dirua lortzia, papel kontuak eta Felixeri laguntzia izan ziran nere lanak Elgoibarko Izarran”*

Hamaika saltsatan eta buruhaustetan jardundakoa da Sabin Osoro. Curriculum luzea dauka, bai herrigintzan eta baita enpresa munduan ere. Sabin 30 urte zituela hasi zen elizaren bueltako saltsetan. Luistarren presidente aukeratu zuten 1952an. Gero, Juventud Obrera Católica (JOC) taldeko lehen presidentea ere bera izan zen. JOC taldeko asanblada ireki batean, Sabinekin Elgoibarren kultur elkarte bat sortu behar zela proposatu zuen. Hemendik sortuko zen Ongarri Elkarte Kulturala. Danobat kooperatibako sorrera prozesuan ere parte hartu zuen. Gure-Kai eta Goiti enpresak bere ideiak izan ziren. Eta, guri dagokigunez, Elgoibarko Izarraren sorreran ere paper garrantzitsua jokatu zuen. Bistan da Sabin ez zela geldi egoteko jaino.

- Elgoibarko Izarraren sorreran, zein izan zen zure papera?


- Nik uste dot nere papela Felixeri laguntzia izan zala. Berak tiratzen zaban, eta guk lagundu. Batez ere diru eske jarduten naban nik. Nora ez giñan juten gu diru eske! Ikastolako batzarretara ere juaten nitzan Felixekin. Eta Elgoibarko Izarrako estatutuak ere neuk prestatu nituan.

- Bonoen ideia ere zurea izan omen zan, ezta?

- Bai. Akordatzan naiz egun batian Felix triste etorri jatala. Zer pasatzen jak Felix? galdetu nion. Atzo gizon jakintsuekin batzarra euki najuan, eta etxaek lokalik erosteko baimenik eman. Loritoko lokala erosi nahi zaban Felixek umiekin eta gaztetxuekin lan egiteko, baiña diru asko zala-eta, ez ziuen aurrerako biderik eman. Ideiarik bai, Sabin? Galdeu zidan. Hurrengo egunian ideia batekin jun nitzan berarengana: bonuak etara, eta herritarren artian zabalduko jaittuagu, esan nion. Ideia ona izan zan, itxuria. 75.000 pezeta bihar genduzen loritoko lokala erosteko, eta 90.000 pezeta batu genduzen. Lokala erosi eta dirua sobrau jakun.

- Sabin “pentsadorea” izan zala jakin dot.

- Je-je, hori merito haundiegia dala esango neuke. Akaso egia izango da hasierako urtietan papel hori bete nabala. Ez naiz ondo akordatzan. Egia da bizitzan zihar proiektu askotan sartu naizela, asko gaizki urten bajataz ere (barrez). Burua asko nekatu dot. Gaur egun bera da (burua) fakultadietatik okerren daukatena. Ibiltzeko ez daukat batere arazorik, baiña burua ...



-13-

- Bitxia begitandu jata Gure-Kai enpresaren ideia. Kontaiguzu, faborez.

- Bai, Gure-Kai enpresa sortzeko ideia ere neria izan zan. Gure-Kai enpresa lokalak erosteko sortu genduan. Lokal biharra zauken elkarte eta taldieri lokalak eskeintzeko, hain zuzen ere. Ubitarteko azpi guztixa erosteko ahalegiña ere egin genduan, eta baita erosteko bihar zana lortu ere. Baiña gero diru asko bihar genduan akondizionatzeko, eta atzera egin genduan. Gaur egun Elgoibarko Izarra daguan lokal zatixa bakarrik erosi genduan. Konportan ikastoliak erabili zaban lokala ere Gure-Kai-k erosi zaban. Gero, Elgoibarko Izarrako eta Gure-Kai-ko zuzendaritzako batzuen arteko konpondu eziñagaittik, Gure-Kai desegiti egin genduan.

- Zelan ikusten duzu Elgoibarko Izarraren ibilbidea?

- Ondo, lan ona egin dan ustia daukat. Hasieran asmatu genduan (inportantia izaten da hasieran asmatzia), eta, gero, hobeto prestatutako jendia sartzen juan da, planteamendu berriekin. Elgoibarko Izarra garrantzi haundiko elkartia bihurtu dala uste dot.

Ez dakigu Elgoibarko Izarraren garrantzia zenbatekoa izango den, baina daukanaren zati bat Sabini ere zor diogu.